

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1.Artikulua

Udal honek Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 14.3 artikulua ematen dion zilegidura erabiliz, ondorengo artikuluan ezarritako terminoetan finkatzen du zerga honen tipoa.

II. GRABAMEN TASA

2.Artikulua

Hiri ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezin gaineko Zergaren tipoa ERASKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean geratu da finkatua.

Landa ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezin gaineko Zergaren tipoa ERASKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean geratu da finkatua.

III. OINARRI EZARGARRIA ETA KUOTAK

3.Artikulua

Hiri ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezin gaineko Zergaren oinarri ezargaria, ondasun horien balio katastrala izango da.

Landa ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezin gaineko Zergaren oinarri ezargaria, ondasun horien balio katastrala izango da.

Zerga honen zehaztapena aurreko ataletan adierazitako oinarri zergagarriei Ordenantza honetako 2.artikuluan bakoitzari dagokion tipoak aplikatuz lortuko da.

IV. KUDEAKETA ARAUAK

4.Artikulua

1.Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapena Gipuzkoako Foru Diputazioaren gain eskuorde daiteke, Udal Batzarrak erabakitako terminoetan, edukian eta eremuan, horretarako hitzarmen egokia izenpetuz.

2.Hartuko den udal erabakia GAOn argitaratuko da

V. AMAIERAKO XEDAPENA

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta bere zati osagarri den Eranskinean dauden karga tasak, Udalbatza Osoak 2009ko urriaren 26an egindako batzarraldian onartu ziren eta indarrean 2010eko urtarrilaren 1ean sartuko dira, aldatu edo derogatzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuko direlarik.

ERANSKINA

Hiri Ondasun Higiezin gaineko Zergaren kuotak zehazteko tipoak bi izango dira:

1.-Balorazio ponentzien arabera, industria edo zerbitzu erabilerako lurzoruan dauden ondasunentzat: %0,3798

2.-Balorazio ponentzien arabera, gainerako ondasun hiritarrentzat: %0,1828

Landa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko tipoa (karga-tasa) %1,0351 izango da.

Ematen diren salbuespen eta hobariak eskaera egin ondorengo zergalditik aurrera izango dute eragina.

HOBARIAK ETA SALBUESPENAK

-a) Kuota osoaren %50eko hobaria obra berriko ondasun higiezinetan edo harekin parekatzen diren eraberritzeetan, beti ere interesatuek obrei ekin aurretik hala eskatzen badute. Ondasun higiezin horiek urbanizazio, eraikuntza eta sustapen inmobiliarioko enpresen jardueraren xede behar dute izan eta beren ibilgetuaren barruan ez egon.

-b) Famili ugariak, diru-sarrerak gordinen mugarekin. Hobariaren portzentajeak, diru-sarrera eta seme-alaba kopuruaren arabera, honako hauek izango dira:

Diru-sarrera gordinak

| | 0 €tik 24.000 €ra | 24.000 €tik-50.000 €ra | 50.000 €tik gora |
|--------------------------|-------------------|------------------------|------------------|
| 3 seme-alaba | %90 | %50 | %15 |
| 4 seme-alaba | %90 | %70 | %40 |
| 5 seme-alaba edo gehiago | %90 | %90 | %60 |

Familia ugariaren kideetako batek elbarritasunen bat edo lan egiteko ezintasunen bat aitorturik izanez gero, familia unitateko kide kopurua egokituko zaio eta kide hori bi kide bezala kontatuko da.

Zerga hobariaren mugak

- Katastro balioa 150.000 € baino handiagoa bada, hobaria aplikatu da, baina gehienez ere balio horri buruz.

- Diru sarrera gordinen muga, hobaria aplikatu beharreko aurreko urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik hartuko da, beti ere familia ugaria osatzen duten kide guztiak kontuan hartuta.

- Familia ugaria izateagatik ematen den hobaria bateraezina izango da OHZri buruz ezarritako edo ezar daitezkeen beste hobari batzuekin.

- Hobaria soilik aplikatuko zaio familia unitatea bizi ohi den ondasun higiezinari. Finka horretan, etxebizitzaz eta ganbara edo trastelekuaz gain dauden beste lokalek ez dute hobaririk izango.

- Ohiko bizitegi izaera emateko ondasun higiezin bati, ezinbesteko baldintza izango da ondasun higiezin horretan erroldaturik egotea zerga hobaria izateko eskubidea duten familiako kide guztiak.

- Ez du izango atzera eragintasunik, hau da, hobari eskabideak aurkezten den urtetik - barne- izango du eragina.

Hobariarekin baliatzeko baldintza formalak.

Aplikazioaren zerga aldiari dagokion sortze egunean (urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean) familia ugariaren titular izaera daukaten hiri OHZren subjektu pasiboek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Interesdunaren eskabidea, eta eskabidean identifikatuko dira, zeinek eskatzen duen (izen-abizenak, NA) nahiz hobaria eskatzeko helburua duen ondasun higiezinak.

- Familia ugariaren titulua edo fotokopia konpultsatua.

- Hobaria aplikatu beharreko aurreko urteko familia osatzen duten kide guztien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren fotokopia konpultsatua edo egin behar ezaren ziurtagiria.

-Ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzea moduan izapidatuko da, dagokion ordainagiria ordaindu izana egiaztatuta eta gero.

-Hobari eskaera hori aztertu ondoren Alkateak edo honek delegatutako organoak dagokion erabakia hartuko du eta, eskatzaileari jakinarazi ondoren dagokion hobaria, Udal Diruzaintzak itzulketa egingo du. Urte batean hobaria aitortu bada eta familiaren egoera aldatzen ez bada, hurrengo urteetan dokumentazioa aurkeztu eta baldintzak betetzen dituela justifikatu ondoren, dagokion diru itzulketa egingo dio Udal Diruzaintzak udal erabaki espresurik gabe.

-Halaber, familia ugariak jabetzan duen etxebizitzak bizi-baldintzak betetzen ez dituenean (txikiegia delako) eta, arrazoi horregatik, beste bat alokairuan hartzera derrigortuta egonez gero, jabetzan duten etxean erroldatuta egotea ez da eskatuko, baina bai alokatuta duten etxean familia osoa erroldatuta egotea. Horretarako, alokairuaren kontratua aurkeztu beharko da.

-c) Babes ofizialeko etxebizitzek hobaririk EZ izatea.

-d) 12/89 Foru Arauko 4.art.C atalak xedatzen duen 15 urtetako salbuespena, landaketa egiten den urtetik zenbatzen hasten da, hots, landaketek bere lehen 15 urtetan izango dute hobari hau.

-e) 1994ko urtarrilaren 1etik aurrera zergatik salbuetsiko dira hezkuntza itunen erregimenera bildutako ikastetxe pribatuak, guztiz edo partzialki kontzertatutako ikastetxe izaera gordetzen duten bitartean.

-f) 13/1996 Foru Arauaren arabera Foru Aldundiak egitasmo estrategiko bezala izendatutako proiektuek %95eko hobaria izango dute.

-g) 5/95 Arau Foralaren 21.artikuluaren arabera, Fundazio eta Erabilgarritasun Publikoko Elkarteak salbuetsiak egongo dira.

-h) Zergaren kuota osoaren %50eko hobaria, Eusko Jaurlaritzaren 2002ko abenduaren 30eko 316/2002 Dekretu bidez etxebizitza hutsei buruz onartutako Bizigune programaren barruan erabilera-lagapena duten ondasun higiezienei dagokienez. Etxebizitza horren balio katastrala 150.000 euro baino handiagoa bada, hobaria aplikatu da, baina gehienez ere balio horri buruz.

Hobari fiskalek mesedezko izaera izango dute eta, hala badagozkie, doakionak eskatuta emango dira.

Hobari desberdinak ez dira akumulatuko eta beti hobari altuena aplikatuko da.

ALKATEA

IDAZKARIA

KONTUHARTZAILEA